

DBH1.mailako ikasleek euskal ohitura, tradizio eta kulturari buruzko hainbat dibulgazio artikulu idatzi dituzte 2.ebaluazioan. Lan hau da DBH1.mailako 1C gelak lehiaketan parte hartzeko hautatu duena; Udako solstizioa.

SUA-SUA, UDAKO SOLSTIZIOA



Denok gustuko dugu udara, baina hau etorri baino lehen, sasoi berriaren etorrera iragartzeko balio duen festa bat ospatzen da. *Udako Sostizioa* edo *San Juan sua* da. Baserritarrek normalean, herriko surik handiena egin nahi izaten dute, baina plazetan ere egin ohi da. Ba al zenekien zer helbururekin ospatzen zuten? Edo zer egin ohi zuten? Artikulu honetan galdera horien erantzuna topatuko duzu!

“San Juan eguna, argitu orduko iluna”

SORRERA

Hasteko, esaten da, **garbitzaile funtzioa** zeukala suak tradizio egiten zutenentzat. Horrez gain, **babesa** eta **energia erakartzen** zuela ere esaten da, izan ere, **espíritu txarrak uxatu** eta **zorte ona erakartzen** omen du. Tradizio honen helburua bere garaian, **Eguzkiari indar gehiago** ematea zen, egun horretatik aurrera Eguzkiak intentsitate baxuagoarekin argizatzen zuelako.



Euskal Herrian, gehien bat, **baserrietan ospatzen** zuten udako solstizioaren etorrera, nahiz eta **plazetan ere** ospatzen zen. Orain hemen ospatzen dugun arren, tradizio hau Europako hainbat tokitan ere egiten da, **zelta tradizioa** duten herrialdeetan bereziki. Era berean, tradizio hau aintzinatik dator, **V. mendetik** hain zuzen ere.

ASPALDIKO OHITURAK EUSKAL HERRIAN



Denok dakigu **ohitura desberdinak** daudela Udako Solstizioa edo San Juan Sua ospatzeko, baina ia-ia denok gauza berdin batean bat egiten dugu. Sua **plazetan** edo **baserrietan** egitea.

Sua **handiagoa** egiteko nahian, **traste zaharrak** eta **egurra** botatzen zituzten.

Hainbat modutan egin ohi da: normalean, **suaren gainetik salto** eginez, honen inguruan **bestuz** eta **dantzatzuz**... Baina leku batzuetan ohitura desberdinak egiten dira. Esate baterako, leku batzuetan, **loreak bedeinkatzen** dituzte, gero beraien etxeetako **ateetan jartzeko**. Bestalde, urarekin ere badaude ohiturak. Adibidez, leku batzuetan egunsentian **itsasoan** edo **errekan murgiltzen** dira, **gaixotasunak sendatzeko** edo **ikusten ez dena garbitzeko**.

GAUR EGUNGO OHITURAK EUSKAL HERRIAN

Udako solstizioa ospatzeko **sua egiten** da, pixka bat itzaltzen denean **gainetik salto** egiten da. Hau baserrian eta plazetan egiten dute, eta mundu guztiak surik handiena egin nahi du, **lehiaketa** bat bailitzan. Jendeak, haurrek gehien bat, ikastolako **liburuak**, **koadernoak** edota **etxeko lanak** botatzen dituzte.



Esaterako, Donostian, sua **egurrekin** egiten da, baita **kaxa zaharrekin** ere. Baserri batzuetan **banbua** ere erabiltzen da; ondoren, pizterakoan banbuarekin soinu ugari egiten da, suziriak izango balira bezala. Laburtuz, festa hau **udako solstizioa** ospatzeko egiten da.